

Perretxikotan ala Rolexetan

Koldo SAGASTI

Duela astebete Pedro Sanchezen arrakero-jokaldi batek bost egunez izan zuen bahituta Espainiako prentsako arreta mediatikoa. Lehen ministro karguan jarraitu ala bertan behera utzi hausnartzeko tarte bat hartu behar zuelako iragarpenak publikoaren zati handi baten atentzioa bereganatu zuen, trilerio iaioek bakarrik egiten dakiten moduan. Baina, su artifizialetatik harago, lagun on batek behinola ohartarazi zidan bezala, politikan benetan zer gertatzen den jakitekotan, hobe dugu prentsaren ordezkari dagokion erakundeko Aldizkari Ofiziala irakurtzea. Horrela deskubritu nuen –ez nik lan neketsu

hori hartzen dudalako, baizik eta lagunak nire partez irakurri eta informazio mamitsuena hautatzen didalako– Sanchezek bere gogoeta prozesuaren emaitzaren berri ematen zuen egun bertsuan, berak zuzentzen duen Gobernuak baimena eman zuela milioika euroko erosketa egiteko Israelgo armagintza enpresa bati. Izan ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean apirilaren 29an argitaratutakoaren arabera, Defentsa Ministerioak 207.100.000 euroan armak erosteko kontratua sinatu du Israelgo Rafael Advanced Defense Systems konpainiarekin.

Esapide herrikoi batek dio ezin dela aldi berean perretxikotan eta Rolexetan

ibili. Espainiako Gobernuako presidentek bere burua nabarmendu nahi izan du nazioarteko iritziz publikoaren aurrean Israelek bete beharreko nazioarteko zuzenbidearen inguruko adierazpen ustez irmoengatik, eta diplomazia hebrearrarekiko tirabirak ere antzestu dituzte adierazpen horien kontura, baina hitzetatik harago, eta distrakzio-triki-mailuak gorabehera, paper ofizialak administrazio espainolaren eta sionistaren arteko lotura estuak uzten ditu agerian, sekula eten ez diren eta azken hilabete odoltsu hauetan sendotu diren harremanak. Historia liburutako papearak ere nor bere lekuan jarriko du, genozidak eta euren konplizeak. •

Bizitzaren gorabeherak

Asier ALESTARAN

Aurreko larunbatean ospatu zen Hernanin aurtengo Bizipoza Jaia. Ez dira asko izango, baina oraindik Bizipoza zer den ez dakienarentzat aipatuko dugu zailtasun desberdinak bizi dituzten familia eta elkarrekin laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea xede duen irabazi asmorik gabeko gizartegintza egitasmoa dela. Eta hori baino gehiago ere bai: poza partekatzen duelako, euskaraz eta sorkuntzatik, auzolanean baloreak gizarteratuz.

Aipatutakoak arrazoi benetan sendoak ziren eguraldi petralari aurre egin eta Hernanira hurbiltzeko. Eta etxeko txikiak zalantza aurpegia jarri zutenean, bigarren argumentu sorta atera genuen mahukatik: “Goazen” telesaileko partai-

deen ikuskizuna, erraldoi eta buruhandien kalejira, eta Porrotx, Marimotots eta Zapotxin pailazoen emanaldia. Txamarra lodiak eta aterkiak hartuta, eurtan baina poz-pozik irten ginen etxetik.

Euskal Herriko udaberria ez da inoiz gutxietsi behar, eta erraldoiak martxan jarri zirenerako eguzkiak gogor jotzen zuen Hernaniko kaleetan. Berokiak eskuan hartuta eta aterkiak non sartu ez genekiela, dultzaineroen erritmoan ibili ginen atzera eta aurrera. Txikiak bizi poza ikusita geurea asetzera hurbildu ginen gero txosnara: a zer zortea, mokadutxo bat jateko Atsegindegiko aterpera sartu ginenean hasi zuen berriz euria. Eta trikitalariek alaitu ziguten otordua!

Bazkalondoko barealdia luzetxo egin zitzaizen haurrei, Porrotx, Marimotots

eta Zapotxin noiz irtengo esperoan urduri zeudelako. Baina merezi izan zuen. Zerua haserretu eta ekaitz harri-garria lehertzearekin batera irten ziren dantzan eta kantari hiru pailazoak oholtzara. Ia bi orduko ikuskizun ederrean elkarte pila bat ezagutu genuen, kolorez eta musikaz blai, ahoan irribarre batekin eta tarteka begi er-tzetan malkoren bat genuela, Bizipozaren esanahia hobeto ulertuz.

Merienda eskertuta, traste guztiak hartu eta etxera abiatu ginen. Bizipoza zainetan, adierazten zaila den lasaitasun bat sentitzen genuen barnean. Eta eguraldia ere inoiz baino bareago gelditu zen arratsalde amaierarako. Egon al liteke hori baino metafora hoberik bizitzaren gorabeherak deskribatzeko? •